

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

PPBtikan erabiliko ditugun baliabideak aniztasun handia edukiko dute: Baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Garrantzi handia ematen diogu atal honeri, izan ere, funtsezkoa dela iruditzen zaigu ahalik eta etekin gehiena ateratzeko. Enpresa baten baliabideak ekoizpen-katean esku hartzen duten elementu desberdinak dira. Haien presentzia ezinbestekoa da enpresaren zirkuitu ekonomikoaren iraunkortasuna bermatzeko. Gure iritziz, baliabideen esleipen edo erabilera zuzenak, enpresaren eraginkortasuna eta emaitzak hobetuko ditu.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoei dagokionez, lehenik eta behin ez ditugu instalazioak edukiko, gehienez bulego xume bat. Izan ere, gure produktua zenbait salmenta puntuetan(kooperatibetan) eta etxez etxeko banaketa bidez salduko dugu, baliabide fisikoen beharra ia ez egonik. Izatekotan, banaketarako furgoneta edukiko genuke baliabide gisa, baina aurreko dokumentuetan azaldu bezala, hau etorkizunerako ideia bat soilik da. Bestalde, ekoizpenerako ere ez genuke baliabiderik beharko, gure produktua beste batzuek ekoizi ondoren guk salduko baikenuke.

Baliabide intelektualak aipatu beharko bagenituen, gure enpresaren zati garrantzitsuak azaldu beharko genituen. Gure markaren (PPB) marketinga ere ona izan behar du, eta proiektua ongi atera ala ez, patentatzea izango zen lehenengo asmoetako bat. Funtsean eta laburbilduz, baliabide intelektualak bigarren mailako baliabideak izango ziren, kontuan hartzen duguna langileen ezagutza, esperientzia eta talentua da.

Giza baliabideek ere euren tokia edukiko dute enpresan, gehienbat sormenari dagokion alorrean. Gure imaginazioa gehienbat saskiaren asteroko diseinuan erabiliko dugu, eta ezinbestekoa da produktu zuzenak, erakargarriak eta sukaldatzeko egokiak aukeratzean izan ere, hortxe egon da slamentaren arrakastaren funtsa. Hau taldeko kide guztion artean egingo dugu, baina Unai Wolfok kidea da adituena gastronomia kontuetan eta hau aprobetxatuko dugu. Merkataritzari dagokionez beste hiru taldekideak ere geure ideiak gehituko ditugu proiektua aurrera eramateko.

Azkenik, badakigu diru iturriak direla enpresaren funtsa, beraz, finantza baliabideak ere erabiliko ditugu bezeroek euren ordainketak ahalik eta modu erosoenean egiteko. Horretarako, dendetan esku rdirutan ordaintzeko aukera eskaintzeaz gain, beste zenbait kreditu linea ere irekiko ditugu, gure bezeroei bizum zein tranferentzi bidez ere ordainketak egiteko aukera eskainiz. Hori gutxi balitz bezala, bazkide txartela ere aterako dugu gure bazkideek hori edukiaz soilik ordainketa egin ahal izateko.